

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ibai-espazioetako turismoaren kudeaketa iraunkorrari buruzko jardunaldi bat antolatu du

Helburua da, landa-munduko tokiko ekonomiak dinamizatuko dituen eta ingurumena errespetatzen duen turismoa sustatzea

Jueves, 22 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak ibai-espazioetan ingurumen iraunkorraren irizpideekin turismoa kudeatzeari buruzko jardunaldi bat antolatu du gaur. Helburua da, landa-munduko ekonomia dinamizatuko duen eta ingurumena errespetatzen duen turismoa sustatzea

Hogeita hamar lagun izan diren jardunaldia Lutra Proiektuaren baitan sartzen da, eta ibai nahiz kostaldetako ekosistemetan gizakiaren inpaktua kudeatzeko metodologia bat sustatzeko zuzenduta dago. Proiektu hau Kataluniako Generalitat-eko Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Ingurumen Departamentuak sustatzen du, eta bertan [Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroak laguntzen du \(CRANA\)](#).

Ibaiko turismoak ingurumeneko inpaktuak ditu, kudeaketa egoki batekin ekidin daitezkeenak, esate baterako: kalteak landaretzan, eragozpenak faunan, ornogabeen populazioaren jaitsiera, ur ertzak higatuta, zaratak, gas-isuriak atmosferan eta ekosistemari ez dagozkion espezieen presentzia.

"Lutra" kudeaketa-sistema ur-espazioen zonaldeengatik turismo-jarduerak eragindako zamen zenbaki-azterketan oinarritzen da. Tresnak ahalbidetzen du, egungo zama zama eraginkorrekarekin eta erabilpen-mailei eragiten dieten mugekin alderatzea. Tresna doako informazio geografikoko sistema batean oinarritzen da informazioa erraz tratatu ahal izateko.

Metodo horren xedeak dira: baliabide naturalak aprobetxatzea antolaketa- eta ingurumen-kudeaketaren irizpideak erabiliz, turismo-jardueren ingurumen-kalitatea sustatzea eta enpresa arduratsuen kudeaketan bikaintasuna sustatzea.

Jardunaldiko aurkezpenaren buru izan dira: Juan José Grau Nafarroako Gobernuaren Ur zerbitziburua eta Josep M. Martí Climent, Kataluniako Generalitat-eko Landa-eremuko Programazio eta Dinamizazio



Belaren eskola-kirola Allotzeko urtegian.

zerbitziburua.

Hitzaldiak honako hauek eskaini dituzte: Ponç Feliu Latorre Alba-Ter Partzuergoko gerenteak Ter ibaia turismo-baliabide modura izandako esperientzia azaldu du; Javier Asín CRANako zuzendari-gerenteak Nafarroako Lutra proiektuan izan duen parte-hartzeaz aritu da; Carles Santana Kataluniako Centre Tecnològic Forestal-ekoak proiektua deskribatzeaz arduratu da; erakunde bereko Oscar Garciak proiektua aztertzeko tresnaren aurkezpen praktikoa egin du, eta Angel Luís González Nafarroako Bela Eskolako presidentek Allotzeko urtegiaren eta Moreako baltsaren turismo-kudeaketako ereduak azaldu ditu.